



Murgian, bi mila eta hamazazpiko abenduaren hamalauan, arratsaldeko zazpiak direnean, aurretik legearen arabera deialdia eginda, Ohiko Bilkura egin da Udaletxeko Bilkura Aretoan. Behean zerrendatzen diren zinegotzi jaun-andreak bildu dira, Unai Gutiérrez Urkiza alkate jaunak zuzendu du bilkura eta Susana Zubiaur Zorrilla andreak Udalbatzako idazkari-lanak egin ditu.

ALKATEA

DON UNAI GUTIÉRREZ URKIZA (EH Bildu)

BERTARATU DIREN ZINEGOTZIAK
INMA ELORZA BERGARA AND. (EH Bildu)

AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA JN. (EH Bildu)

ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA AND. (EAJ-PNV)

CONCHI LÓPEZ LÓPEZ AND. (EAJ-PNV)

LUIS ALBERTO RUIZ DE OLANO APODACA JN. (EAJ-PNV)

SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE AND. (ZBG-ZNU)

JOSE ANTONIO EGUILUZ ABECIA JN. (ZBG-ZNU)

LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ JN. (PP)

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK

GORKA IRIONDO GANTXEGI JN. (EH Bildu)

JUAN CARLOS ALONSO MORAZA JN. (ZBG-ZNU)

Arratsaldeko zazpitan bilkura publikoa irekita, Lehendakaritzaren aginduz aurreikusitako gai-zerrenda landu, eta adierazten ditudan ondoko erabakiak hartu dira.

1.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

En Murgia a catorce de diciembre de dos mil diecisiete, siendo las diecinueve horas, previa convocatoria cursada en forma legal, se celebró Sesión Ordinaria en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial con la asistencia de l@s Señor@s Concejales que debajo se relacionan bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Unai Gutiérrez Urkiza, actuando de Secretario la de la Corporación, D^a Susana Zubiaur Zorrilla.

ALCALDE

DON UNAI GUTIÉRREZ URKIZA (EH Bildu)

CONCEJALES ASISTENTES

DOÑA INMA ELORZA BERGARA (EH Bildu)

DON AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA (EH Bildu)

DOÑA ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA (EAJ-PNV)

DOÑA CONCHI LÓPEZ LÓPEZ (EAJ-PNV)

DON LUIS ALBERTO RUIZ DE OLANO APODACA (EAJ-PNV)

DOÑA SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE (ZBG-ZNU)

DON JOSE ANTONIO EGUILUZ ABECIA (ZBG-ZNU)

DON LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ (PP)

CONCEJALES QUE NO ASISTEN

DON GORKA IRIONDO GANTXEGI (EH Bildu)

DON JUAN CARLOS ALONSO MORAZA (ZBG-ZNU)

Abierto el acto público a las diecinueve horas, por orden de la Presidencia se trató el Orden del día previsto, adoptándose los acuerdos que paso a reseñar.

1.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR.



Aurreko bilkuraren akta ikusirik honako zuzenketa hauek egin dira:

- Otsa Eribeko zinegotzi jaunak esan du 4.- Laguntza humanitariorako aurreikusitako 2017ko aurrekontu-izendapena esleitzea izeneko aztergaiak akatsa dagoela, Saharako proiekturako adostutako zenbatekoa 6.000 eurokoa zelako eta izendapenaren gainerakoarekin -16.000 euro- diruz lagundu beharreko bigarren proiektua Nikaraguako Roberto Vargas eta Noel Morales auzoetan 1200 ml-ko drainatze-lanen 1. eta 2. Fasea egitea izango zela, hasiera batean proposatutako beste proiektu batzuk amaitu izanagatik.

- Ircio zinegotzi andreak esan du 5.- Azaroak 25 Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguneko adierazpena izeneko aztergaiak hitz egin zuenean azaldu zuela ez zuela argi ikusten zer esan nahi zuen partidak handitzea *horiek ezagutzen ez direnean*.

- Alkateak esan du 6.- Errepublikakatalana babestu eta aitortzeko adierazpena izeneko azterlanean Iriondo zinegotzi jaunaren ondoren hitz egin zuzenean esan zuela *Luis Marik esaten duen bezala*, espetxean daude ez dutelako bete.

Udalbatzak aho batez onartu du akta aipatu zuzenketeekin eta hizkuntzarloko beste batzuekin.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK.

Alkatetzak 2017.11.06ko 367. zk.ko dekretutik 2017.12.04ko 410.era arte eman dituen xedapenen berri eman eta ondoko gai hauei buruzkoak dira: Administrazio Batzarrei gehieneko dirulaguntzak ematea: Ametzaga Zuiakoari 2.921,73 €, Gizarte Zentroko lanetarako, 2016ko ekitaldiaren kargura emandakoa baliogabetu eta zenbatekoa 2017an beste

Vista el acta de la sesión anterior se realizan las siguientes correcciones:

- El Concejal Sr. Otsa Eribeko dice que en el punto 4.- Asignación de la consignación presupuestaria 2017 prevista para ayuda humanitaria existe un error, porque la cuantía acordada para el proyecto del Sahara era de 6.000 euros y el segundo proyecto a subvencionar con el resto de consignación existente -16.000 euros-, a la vista de la finalización de otros proyectos inicialmente propuestos, fue el de construcción de drenaje de 1200 ml, los barrios Roberto Vargas y Noel Morales Fase 1 y 2 en Nicaragua.

- La Concejal Sra. Ircio dice que en el punto 5.- Declaración institucional del 25 de noviembre Día Internacional Contra la Violencia hacia las Mujeres, en su intervención dijo que no tenían claro lo que significaba ampliar las partidas *cuando se desconocen las mismas*.

- El Alcalde dice que en el punto 6.- Declaración en apoyo y reconocimiento a la República catalana, en su intervención tras la del Concejal Sr. Iriondo, dijo que *como dice Luis Mari*, están en la cárcel porque han incumplido.

La Corporación por unanimidad aprueba el acta con dichas correcciones además de otras de carácter lingüístico.

2.- DECRETOS DE ALCALDÍA.

Se da cuenta de las resoluciones de la Alcaldía desde el Decreto Nº 367 del 06.11.2017 al 410 de 04.12.2017 referentes a la concesión de subvenciones máximas a las Juntas Administrativas de Ametzaga Zuiakoari para las obras del Centro Social de 2.921,73€ una vez anulada la concedida con cargo al ejercicio 2016 y recalculado el importe a la vista de la subvención concedida en 2017 por otra entidad, para



erakunde batek emandako diru-laguntzaren arabera birkalkulatu ondoren, 5.894,60 €, arkitektura-oztopoak kentzeko lanetarako - ibiak egin-, 2016ko ekitaldiaren kargura emandakoa baliogabetu eta zenbatekoa 2017an beste erakunde batek emandako diru-laguntzaren arabera birkalkulatu ondoren, eta 11.043,45 €, herriko kaleetan hainbat zati berriro zolatzeko lanetarako; Sarriakoari, 320,05 eta 160,33 euro, hurrenez hurren, bide batean led moduludun luminaria jartzeko eta Elizaren fatxadan dagoen fokua aldatzeko, eta 1.070,22 €, ondasun eta eskubideen inbentarioa eguneratu eta jabetza-erregistroan inskribatzeko; Bitorianoko Batzarrari 7.481,65 €, herriko errotaren estalkia eta hormak berritzeko lanetarako; Murgiako Batzarrari 5.000 €, herriko jaietarako; Aperregiko Batzarrari 1.200 € herriko jaietarako; eta Domaikiako Batzarrari 4.550 €, herriko jaietarako. Herritar bati baimena ematea 1058/1 lursailean ahuntzak eta antxumea edukitzeko, bertan bazka dezaten. Udalerriko lau familiari diru-laguntzak ematea udan haurrak etxean hartzeagatik. LPZn idazkari-kontuhartzailearen eta diruzain-kudeatzaile administratiboaren lanpostuen inguruan egindako balorazioagatik idazkari-kontuhartzaileak aurkeztutako erreklamazioa atzera botatzen duen Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiaren Prozedura laburtuko 806/2017-B zk.ko administrazioarekiko auzi-errekurtsoari lotutako espedientea bidaltzea; Murgiako 7. poligonoko 280. lursailean eraikitako etxebizitzaren okupazio-baimena ukatu izanagatik Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiaren beraren 964/2017-E administrazioarekiko auzi-errekurtso arruntean eskatutako espedientea igortzea. 2016/17 ikasturteko eskolaz kanpoko jardueretarako gehieneko diru-laguntzak ematea: Izarra Herri Eskolako IGERi 953,21€, Murgia BHIko IGERi 3.000€. Lan-baimenak ematea: Ametzaga Zuiako

las obras de supresión de barreras arquitectónicas -ejecución de vados- por importe de 5.894,60€ una vez anulada la concedida con cargo al ejercicio 2016 y recalculado el importe en base a la subvención concedida en 2017 por otra entidad y para las obras de repavimentación de varios tramos en calles de la localidad por importe de 11.043,45€, Junta de Sarría para la instalación de luminaria con módulo led en vial y la sustitución de foco existente en fachada de la Iglesia por importes de 320,05 y 160,33 respectivamente y 1.070,22€ para la actualización el Inventario de bienes y derechos e inscripción en el registro de la propiedad, Junta de Bitoriano para las obras de restauración de la cubierta y paredes del molino de la localidad por importe de 7.481,65€, Junta de Murgia para las fiestas patronales por importe de 5.000€ Junta de Aperregi para las fiestas por importe de 1.200€ y Junta de Domaikia para las fiestas por importe de 4.550€ autorización a vecina para tener cabras y un chivo en la parcela 1058/1 para pastar, concesión de subvenciones a 4 familias del municipio por acogida de niñas durante el verano, remisión del expediente relacionado con el recurso contencioso-administrativo Proced. Abreviado 806/2017-B del Juzgado de lo Contencioso N° 2 de Vitoria-Gasteiz interpuesto por la Secretaria-Interventora frente a la desestimación de la reclamación presentada por la valoración realizada en la RPT de los puestos de Secretaria-Intervención y Tesorero-Gestor administrativo, remisión del expediente solicitado en el recurso contencioso-administrativo Ordinario N° 964/2017-E del mismo Juzgado N° 2 de Vitoria-Gasteiz por denegación de la licencia de ocupación de la vivienda construida en la parcela 280 polígono 7 de Murgia, concesión de subvenciones máximas para las actividades extraescolares del curso 2016/17: a la AMPA Izarra Herri Eskola 953,21€, AMPA del IES de Murgia 3.000€,



etxebizitzaren fatxadan isolatze-lanak egiteko; Murgiako San Martin kaleko 10-40 zenbakietako eraikinaren estalkia konpontzeko; Bitorianoko Batzarrari herriko errota zaharberitzeko lanak egiteko; Bitorianoko 1.223/2 lursailean aurreikusitako familia biko etxebizitzaren familia bakarreko etxebizitza eraikitzeko; Ametzaga Zuiako Batzarrari, kale batzuetan egindako birzolatzea legezztatzea eta espaloi batzuetan janguneak egiteko. Murgiako 40/6 lursaileko etxebizitzan egiteko eraberritze-lanak okupatzeko eta Murgiako 23/2 lursaileko eraikinaren estalkia zaharberitzeko okupazio-baimenak ematea. Errekerimenduak: Bitorianoko 1.222/2 lursailaren titularrei bertako landaredia garbitzeko eta Murgiako 282/7 lursailarenei bertan egindako igerilekua suntsitzeko lanak legezta dezaten. Abeltzaintza-azoka, lan, zerbitzu, hornidura, zinegotzien dieta, diru-laguntza eta udal-langileen azaroko soldatei dagozkien 21., 22., eta 23. zk.ko ordainketa-zerrendak (23.768,56, 107.035,41 eta 23.121,54 euro, hurrenez hurren) onartzea. Kontratu txikiak esleitzea: Javier Ruiz de Larrinagari babesletzakoa, 1.800 €, ziklokroseko 2017/18 txirringularitza-denboraldian CRESME, S.A. taldearekin aritzeko; 10.004 € gehi BEZ, El Fresnal inguruko basoberritzean landare antzuak garbitzeko eta inausketa-lanetarako. Santiago Saénz de Lafuente behin-behineko idazkari izendatzea titularren oporretan, hau da, azaroaren 13tik 17ra. Tasen erroldak onartzea: 2017/18 ikasturtearen matrikulari eta urriko kuotei dagozkien Musika Eskolakoak: 10.491,54 €; bazkalekuenak: 4.565,77 €; hiri-errentamenduenak: 114,00 €; landa-errentamenduenak: 12.265,53 €; berokuntzarena: 300,51 €. Domingo de Sautu kaleko lanen Segurtasun eta Osasun Plana onartzea eta horien segurtasun- eta osasun-koordinatzailea onartzea. 1/2017 kredituak bideratzeko 537,24 €ko espedientea eta udalerrian bizi ez diren

concesión de licencias de obras de aislamiento en fachada de vivienda en Ametzaga Zuija, para reparar la cubierta del edificio de la C/San Martín N° 10-40 de Murgia, a la Junta de Bitoriano para ejecutar las obras de restauración del molino de la localidad, para la construcción de una vivienda unifamiliar de la bifamiliar prevista en la parcela 1.223/2 de Bitoriano, a la Junta de Ametzaga Zuija para legalizar la repavimentación realizada en algunas calles y ejecutar rebajes en algunas aceras, concesión de licencias de ocupación para las obras de reforma ejecutadas en la vivienda de la parcela 40/6 de Murgia y la rehabilitación de la cubierta del edificio de la parcela 23/2 de Murgia, requerimientos a los titulares de la parcela 1.222/2 de Bitoriano para que limpien de vegetación la misma y a los de la 282/7 de Murgia para que legalicen las obras de demolición de la piscina ejecutadas en la misma, aprobación de las relaciones de pagos N° 21, 22 y 23 referentes a gastos de la feria ganadera, obras-servicios-suministros-dietas de Concejales-subvenciones y retribuciones del personal del Ayuntamiento del mes de noviembre por importes de 23.768,56, 107.035,41 y 23.121,54 euros respectivamente, adjudicación de contratos menores de patrocinio con Javier Ruiz de Larrinaga durante la temporada ciclista de ciclocross 2017/18 por importe de 1.800€, con Grupo CRESME S.A. para trabajos de clara improductiva y poda en la repoblación de El Fresnal por importe de 10.004€ más IVA, nombramiento de D. Santiago Saénz de Lafuente como Secretario accidental durante las vacaciones de la titular del 13 al 17 noviembre, aprobación del Padrón de las tasas de la Escuela de música correspondiente a la matrícula del curso 2017/18 y cuotas del mes de octubre por importe de 10.491,54€, aprobación de los padrones 2017 de pastos: 4.565,77€, arrendamientos urbanos 114,00€, arrendamientos rústicos 12.265,53€, calefacción 300,51€, aprobación del Plan



baina bertan erroldatuta dauden pertsonen ofiziozko bajak onartzea.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

3.- POSTA OFIZIALA

3.1.- Arabako Foru Aldundia:

- Abeltzaintza Zerbitzuak, abeltzaintza-azokako albaitari-zerbitzuei dagozkien tasaren ordainketa-gutuna bidali du.

- Mendi Zerbitzuak: 2018ko baso-espediten udalaren loteetako zuhaitzen seinaleztapenari buruzko datuen laburpena bidali du; erabilera publikoko 734. mendian pinu-masen aprobetxamendua premia onartu dela jakinarazi du. Sautu zinegotzi jaunak seinaleztatutako zuhaitz-loteen eta premia aprobetxamenduaren inguruan galdetu, eta alkateak jakinarazi dio 3 lote direla eta emango diola kopia bat, eta pinu gorrien masaren premia aprobetxamendua Kontzejuren batena dela AFArekin %50eko partzuergoan.

- Diputatu nagusiak, *"Bortizkeria matxistak geruza asko ditu. Moztu dezagun errotik! Har ezazu parte"* izeneko kanpainaren berri eman du.

- Toki Administrazio Sailak: prestakuntza-plana bidali du jardunaldiak eta administrazio elektronikoko proiektuaren edukiarekin; izapidegile eta sinatzaileen prestakuntzarako gidaliburuak igorri ditu; 2017.11.26ko Kontzejuen hauteskundeetarako bozkatzeko-jarraibideak bidali ditu; eta trafikoko fitxategiak igorri ditu, 2017ko irail eta urriko aldaketekin.

- Bide-azpiegitura eta Mugikortasun Sailak: Errepedetan sasiak garbitu eta

de Seguridad y Salud de las obras de la C/Domingo de Sautu y el nombramiento del coordinador de seguridad y salud de las mismas, aprobación del expediente de habilitación de créditos 1/2017 por importe de 537,24€ y bajas de oficio de personas empadronadas no residentes en el municipio.

La Corporación se da por enterada.

3.- CORRESPONDENCIA OFICIAL.

3.1.- Diputación Foral de Álava:

- Servicio de Ganadería remite carta de pago de la tasa por servicios veterinarios durante la feria ganadera.

- Servicio de Montes remite resumen de datos de señalamientos de arbolado de lotes del Ayuntamiento del expediente forestal 2018, comunica la aprobación de urgencia del aprovechamiento de masas de pino en el monte de U.P. 734. El Concejal Sr. Sautu pregunta sobre los lotes de arbolado señalados y el aprovechamiento de urgencia, informándole el Alcalde que son 3 lotes y ya le pasará una copia y el aprovechamiento de urgencia de la masa de pino silvestre es de algún Concejo en consorcio con DFA al 50%.

- Diputado General informa de la campaña *"La violencia machista tiene muchas capas, cortemos de raíz, implícate"*.

- Administración local remite plan formativo con jornadas y contenido del proyecto de administración electrónica, remite guías para las formaciones de tramitadores y firmantes, envía instrucciones de votaciones a elecciones de Concejos el 26.11.2017 y ficheros de tráfico con las variaciones correspondientes a los meses de septiembre y octubre 2017.

- Infraestructuras viarias y movilidad informa de la campaña



inausketak eta ebaketak egiteko Plan barruko 2017/2018ko kanpainaren berri eman du; eta Murgian hornidura kanalizatu eta elektrizitate- eta telekomunikazio-sareak lurperatzeko lanetarako baimena bidali du.

- Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, 2017. urteko musikako prestakuntza-programetarako emandako diru-laguntzaren justifikazioa aurkezteko azken eguna gogorarazi du. Sautu zinegotzi jaunak diru-laguntzaren zenbatekoaz galdetu eta alkateak erantzun dio 5.000 € inguru izan direla.

- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, 2017ko urriko derrigorrezko diru-bilketa ordaindu duela jakinarazi du.

- Toki Zerga eta Katastro Sailak, 2017ko EJZren errolda bidali du, eta ondoren, 2. egoerako koefizientea duten zergadunei dagozkien zuzendutako hainbat likidazio igorri ditu.

- Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren Zerbitzuak, Murgian hornidura-hodia kanalizatu eta elektrizitate- eta telekomunikazio-sareak lurperatzeko obraren finantza-plana onartu duela jakinarazi du.

- Arabako Kalkulu Zentroak jakinarazi du Udalaren birusen aurkako lizentziak 2017.12.20an iraungiko direla eta berritzeari dagokion prezioaren berri eman du.

- Ingurumen eta Hirigintza Sailak, ALHren Garapen Iraunkorrerako Plan Estrategikoa onartu duela eta Aldundiaren web orrian deskargatzeko aukera dagoela jakinarazi du.

3.2.- Eusko Jaurlaritza:

- Hezkuntza Sailak: gutxi barru EHAAn Udalaguntza 2017 argitaratuko dela jakinarazi du; Murgia BHiko tailer-eremuaren egoerari buruzko instalazio- eta mantentze-arloko txosten teknikoa bidali eta horiek botatzeko premiaren berri eman du; eta Oroko Andre Mariaren HLHiko

2017/2018 Plan de desbroces, podas y talas en carreteras y remite autorización de las obras de renovación de la canalización del abastecimiento y soterramiento de redes eléctricas y de telecomunicaciones en Murgia.

- Euskera, cultura y Deportes recuerda la fecha límite para la justificación de la subvención concedida para los programas de formación musical del año 2017. El Concejal Sr. Sautu pregunta sobre el importe de la subvención, contestándole el Alcalde que son unos 5.000€.

- Hacienda, Finanzas y Presupuestos comunica el pago de la recaudación ejecutiva del mes de octubre/2017

- Tributos Locales y Catastro remite el padrón del IAE 2017 y posteriormente remite corregidas determinadas liquidaciones correspondientes a contribuyentes con coeficiente de situación 2.

- Servicio de Plan Foral de Obras y Servicios comunica la aceptación del plan financiero de la obra de renovación de la canalización de la tubería de abastecimiento y soterramiento de las redes eléctricas y de telecomunicaciones en Murgia

- Centro de Cálculo de Álava informa de la caducidad de las licencias antivirus del Ayuntamiento el próximo 20.12.2017 y comunica el precio de renovación.

- Medio Ambiente y Urbanismo informa la aprobación del Plan estratégico de Desarrollo Sostenible del THA y la posibilidad de su descarga en la página web de Diputación.

3.2.- Gobierno Vasco:

- Educación informa de la próxima publicación en el BOPV Udalaguntza 2017, remite informe técnico del área de instalaciones y mantenimiento sobre el estado de la zona de talleres del IES de Murgia comunicando la urgencia de su demolición e informa de la próxima retirada



patioan dauden modulu aurrefabrikatuak laster kenduko dituztela helarazi du.

- Turismo eta Kontsumo eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailek Ekonomia Jardueren eta Merkataritza Ekipamenduen Lurralde Arloko Planaren berrikuspen partziala aurkezteko ekitaldiaren deialdia bidali dute.

- Ingurumen Sailak, Murgiako Talleres de Zuia enpresa hartzen duen finkaren zati bateko lurzorua kalitatea adierazteko prozedura hasi dela jakinarazi du.

- Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak, peoi orokorraren lanposturako curriculumak duten izangaien zerrenda bidali du.

- Ogasun eta Ekonomia Sailak, 1.572,50 €ko diru-laguntza ordaindu duela jakinarazi du, Bake Epaitegiaren 2017ko funtzionamendu-gastuetarako.

- Ihobe S.A.-k 2017ko Euskadiko udalerrira iraunkorraren saria emateko ekitaldirako gonbidapena bidali du.

3.3.- Epaitegiak:

- Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiak: zitazioa bidali dio funtzionario bati LPZren inguruan aurkeztutako errekursoan 2017.02.08rako jarritako ikustaldira bertara dadin eta bertaratu izanaren berri eman du; Murgian eraikitako etxebizitza bati okupazio-baimena ukatu izaren aurrean sustatutako errekursoari lotutako eskaera egin du berriz ere; eta LPZren inguruko 806/2017 prozedura laburtuko eta Murgian familia bakarreko etxebizitza bati okupazio-baimena ukatzeari lotutako 964/2017 prozedurako antolaketa-eginbideak bidali ditu.

- Zuiako Bake Epaitegiak Udaletxean izandako ezkontza zibilaren espedienteak bidali du.

4.- ARETXALTUAGAKO ZUHAITZ LOTEAREN

de los módulos prefabricados ubicados en el patio del CEIP Virgen de Oro.

- Turismo, Comercio y Consumo y Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda remiten convocatoria a acto de presentación de la revisión parcial del Plan Territorial Sectorial de Actividades Económicas y Equipamientos Comerciales.

- Medio Ambiente comunica el inicio del procedimiento de declaración de calidad del suelo de parte de la finca de Talleres de Zuia en Murgia.

- Empleo y Asuntos Sociales remite relación de candidatos con curriculum para puestos de peón general.

- Hacienda y Economía informa del abono de la subvención de 1.572,50€ para gastos de funcionamiento del Juzgado de Paz 2017.

- Ihobe S.A. remite invitación al acto de entrega del Premio municipio sostenible de Euskadi 2017.

3.3.- Juzgados y Tribunales:

- Juzgado de lo Contencioso-Administrativo Nº 2 de Vitoria-Gasteiz remite citación a funcionario para asistencia a la vista señalada para el 08.02.2017 en el recurso interpuesto frente a la RPT y comunica la personación del mismo en el citado recurso, reitera la solicitud del expediente relacionado con el recurso promovido frente a la denegación de licencia de ocupación de una vivienda construida en Murgia y remite diligencias de ordenación en el procedimiento abreviado 806/2017 relacionado con la RPT y en el 964/2017 relacionado con la denegación de la licencia de ocupación de una vivienda unifamiliar en Murgia. .

- Juzgado de Paz de Zuia remite expediente de matrimonio civil a celebrar en el Ayuntamiento.

4.- DEVOLUCIÓN DE FIANZA A BIARRITZ CO2, ADJUDICATARIA



**ESLEIPENDUN DEN BIARRITZ CO2
ENPRESARI FIDANTZA
ITZULTZEA.**

Alkateak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, erabilera publikoko 734. mendiko Aretxaltuaga inguruko zuhaitz-lotearen esleipendun den BIARRITZ CO2, S.L. enpresak utzitako fidantza kitatzea proposatu du, Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuko basozainak kudeaketa egokiaren txostena egin baitu.

Kontratua arautzen duen Baldintza administratiboen pleguko 5. baldintzak bermea itzultzeari buruz xedatutakoa kontuan hartuta.

Udalbatzak honako hau ERABAKI DU aho batez:

LEHENENGOA.- Erabilera publikoko 734. mendiko Aretxaltuaga inguruko 2. loteari dagokion baso-aprobetxamenduaren kudeaketa egokiaren berme gisa bere egunean BIARRITZ CO2, S.L. enpresak utzitako fidantza kitatzea eta itzultzea. 13.490,00 euroko fidantza hori eskudirutan utzi zen.

BIGARRENA.- Interesatuari ebazpen honen berri eman eta hurrengo ordainketa-aginduan itzultzea.

**5.- ZUIAKO EGUNEKO
ARRETARAKO ZENTROAREN
ERABILTZAILIEN
LAGUNTZARAKO ETA
FUNTZIONAMENDURAKO
ZERBITZUA KONTRATATZEA.**

Zuiako Eguneko Arretarako Zentroaren erabiltzaileen laguntzarako eta funtzionamendurako zerbitzuaren kontratua prozedura ireki bidez eta hainbat esleipen-irizpiderekin esleitzeko izapidetzen ari den

**DEL LOTE DE ARBOLADO EN
ARETXALTUAGA**

El Alcalde, reiterando lo expuesto en la Comisión informativa, propone cancelar la fianza depositada por BIARRITZ CO2 S.L. como adjudicataria del lote de arbolado del monte de U.P. 734, término de Aretxaltuaga, una vez informada favorablemente la gestión del mismo por parte del Guarda Forestal del Servicio de Montes de la Diputación Foral de Álava.

Considerando lo dispuesto en la cláusula 5 del Pliego de cláusulas administrativas regulador del contrato sobre devolución de la garantía.

La Corporación por unanimidad ACUERDA:

PRIMERO.- Cancelar la fianza depositada en su día por BIARRITZ CO2 S.L., como garantía de la adecuada gestión del aprovechamiento forestal correspondiente al Lote 2 del monte de U.P. 734, término de Aretxaltuaga, constituida en metálico, por importe de 13.490,00 euros y proceder a su devolución.

SEGUNDO.- Notificar esta resolución al interesado, y proceder a la devolución de la misma en la próxima orden de pagos.

**5.- CONTRATACIÓN DEL
SERVICIO DE ATENCIÓN A LAS
PERSONAS USUARIAS Y
FUNCIONAMIENTO DEL CENTRO
DE ATENCIÓN DIURNA DE ZUIA**

EXAMINADO el expediente que se tramita para adjudicar el contrato para la prestación del Servicio de Atención a las personas usuarias y funcionamiento del Centro de Atención Diurna de Zuia, mediante procedimiento abierto con



espedientea AZTERTUTA, ondorengo aurrekariak daude:

1.- Osoko Bilkurak, 2017ko urriaren 19an izandako bileran, honako hauek onartu zituen: Zuiako Eguneko Arretarako Zentroaren erabiltzaileen laguntzarako eta funtzionamendurako zerbitzua prozedura ireki bidez, diru-eskaintza onuragarrienari eta hainbat esleipen-irizpiderekin esleitzeko kontratazio-espedientea, aipatu kontratua arautuko duten baldintza administratibo eta teknikoen pleguak eta horri aurre egin ahal izateko hurrengo bi ekitaldietan beharrezko eta nahikoa kreditu gordetzeko konpromisoa, aurrekontuko 231.227.000 partidaren horretarako gordailua egon ohi bada ere.

2.- Lizitazioaren iragarkia Arabako Lurralde Historikoen Aldizkari Ofizialaren 2017ko azaroaren 3ko 126. alean, Zuiako udalaren kontratatzailearen profilea eta Eusko Jaurlaritzaren kontratazio-plataforman argitaratu zen.

IKUSIRIK lizitazio-epetan espedientean jasotako proposamen bakarra aurkeztu dela, honako hau izanik:

SIRIMIRI **SERVICIOS**
SOCIOCULTURALES, S.L.

IKUSIRIK 2017.11.24an, 13:45ean, kontratazio-mahaiak lizitatzailak aurkeztutako dokumentazioa sailkatu eta proposamena egoki eta berez onartutzat jo zuela, eta ondoren, 14:00etan, jendaurreko ekitaldian formula bidez balora ezinezko irizpideei buruzko (proiektu teknikoa eta kudeaketakoa eta hobekuntzak) 2. zenbakiko gutun-azala ireki zuela, eta dokumentazio hori aztertu ondoren, dokumentazio hori baldintza

diversos criterios de adjudicación, resultan los siguientes antecedentes:

1.- El Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 19 de octubre de 2017 aprobó el expediente de contratación para adjudicar el Servicio de Atención a las personas usuarias y funcionamiento del Centro de Atención Diurna de Zui, mediante procedimiento abierto, oferta económicamente más ventajosa, varios criterios de adjudicación, los Pliegos de cláusulas administrativas y técnicas que han de regir el citado contrato y el compromiso de reservar el crédito necesario y suficiente para hacer frente al mismo durante los dos próximos ejercicios, si bien habitualmente hay consignación destinada a tal fin en la partida 231.227.000 del presupuesto.

2.- El anuncio de licitación se publicó en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava N° 126 de fecha 3 de noviembre de 2017, perfil del contratante del Ayuntamiento de Zui y en la plataforma de contratación pública del Gobierno Vasco.

VISTO que durante el plazo de licitación se ha presentado una única proposición que consta en el expediente y es la siguiente:

SIRIMIRI **SERVICIOS**
SOCIOCULTURALES, S.L.

VISTO que con fecha 24.11.2017 a las 13:45 horas la Mesa de contratación procedió a calificar la documentación presentada por la licitadora, considerando la proposición presentada correcta y por tanto admitida y posteriormente a las 14:00 horas, en acto público procedió a la apertura del Sobre número 2, referido a la documentación técnica relativa a los criterios no valorables mediante fórmulas (proyecto técnico y de gestión y mejoras) y tras examinar la misma, se acordó dar



administratiboen aurreikusitako adituen batzordeari bidaltzea azter zezan.

traslado de dicha documentación al Comité de expertas previsto en el pliego de cláusulas administrativas para su valoración.

IKUSIRIK 2017.12.05ean formulen bitartez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko 3. zenbakiko gutun-azaleko dokumentazioa (eskaintza ekonomikoa) irekitzea helburu zuen kontratazio-mahaia eratu zela, eta horren aurretik, **2. gutun-azaleko dokumentazio teknikoaren** adituen batzordeak emandako txostenaren araberrako **balorazioaren berri eman** zela, puntuazio hori honako hau izanik:

VISTO que con fecha 05.12.2017 se constituyó la Mesa de Contratación que tenía como objeto la apertura de la documentación incluida en el Sobre número 3, criterios evaluables mediante fórmulas (oferta económica), procediéndose con carácter previo a ello, **a dar cuenta de la valoración de la documentación técnica del Sobre 2** en base al informe emitido por el Comité de expertas, cuya puntuación se detalla a continuación:

Diseinu orokorra <i>30 puntu</i>	Langileen eraketa <i>15 puntu</i>	Inguruaren ezagutza <i>5 puntu</i>	Esku-hartzeen ebaluazioa <i>5 puntu</i>	Hobe-kuntzak <i>10 puntu</i>	GUZTIRA
22	13	5	5	8	53

Diseño global <i>30 puntos</i>	Composición del personal <i>15 puntos</i>	Conocimiento del entorno <i>5 puntos</i>	Evaluación de las intervenciones <i>5 puntos</i>	Mejoras <i>10 puntos</i>	TOTAL
22	13	5	5	8	53

Ondoren, formula bidez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko 3. GUTUN-AZALA ireki zen, emaitza honako hau izan zelarik:

A continuación, se procedió a la apertura del SOBRE 3, criterios evaluables mediante fórmulas, cuyo resultado es el siguiente:

LIZITATZAILEA	Eskaintza ekonomikoa (BEZ gabe)
SIRIMIRI SERVICIOS SOCIOCULTURALES, S.L.	Orduko 22,30 €

LICITADORA	Oferta económica (sin I.V.A.)
SIRIMIRI SERVICIOS SOCIOCULTURALES, S.L.	22,30 €/hora



Ikusirik aurkeztutako eskaintza eta bakarra denez, kontratazio-mahaiak gehieneko puntu-kopurua eman dio, 35, eta azkenean, puntuazio guztiak batu ditu, emaitza ondorengo izanik:

A la vista de la oferta económica presentada y que es única, la Mesa de Contratación valora la misma en el máximo de puntos, 35, y finalmente suma todas las puntuaciones, obteniéndose el siguiente resultado:

LIZITATZAILEA	Eskaintza ekonomikoa 35 puntu	Proiektua 55 puntu	GUZTIRA
SIRIMIRI SERVICIOS SOCIOCULTURALES, S.L.	35 puntu	45 puntu	80 puntu

LICITADORA	Oferta económica 35 puntos	Proyecto 55 puntos	TOTAL
SIRIMIRI SERVICIOS SOCIOCULTURALES, S.L.	35 puntos	45 puntos	80 puntos

Lortutako guztizko balorazioa ikusirik, kontratazio-organoari Zuiako Eguneko Arretarako Zentroaren erabiltzaileen laguntzarako eta funtzionamendurako zerbitzua **SIRIMIRI SERVICIOS SOCIOCULTURALES S.L.** enpresari esleitzen proposatzea erabaki du kontratazio-mahaiak, udalaren interesetarako diru-eskaintzarik onuragarria dela uste izanagatik. Horrenbestez, enpresa horri, jakinarazpenaren ondorengo hamar egun baldiodunen epearen buruan Baldintza administratiboen pleguko 17. baldintzan aurreikusitako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa aurkez dezala eskatzea dagokio.

A la vista de la valoración total obtenida la Mesa acuerda proponer al órgano de contratación adjudicar el Servicio de Atención a las personas usuarias y funcionamiento del Centro de Atención Diurna de Zui, a **SIRIMIRI SERVICIOS SOCIOCULTURALES S.L.** por considerar su oferta ventajosa económicamente para los intereses municipales, por lo que procede requerir a la misma para que dentro del plazo de diez días hábiles a contar de la notificación, presente la documentación justificativa del cumplimiento de los requisitos previstos a que hace referencia la cláusula 17 del Pliego de cláusulas administrativas.

Erantsitako dokumentazio AZTERTUTA eta horrekin eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 151. artikuluan eta bigarren xedapen gehigarriko 2. atalean ezarritakoarekin bat,

EXAMINADA la documentación que la acompaña y de acuerdo con la misma y de conformidad con lo establecido en el artículo 151 y la Disposición Adicional Segunda 2. del Real Decreto Legislativo 3/2011 de 14 de noviembre por el que se aprueba el Texto Refundido la Ley de Contratos del Sector Público,



Udalbatzak honako hau ERABAKI
DU aho batez:

LEHENENGOA.- Kontratu honen xede den kontratazio-prozeduran egindako lizitazio-egintzak baliozkotzat jotzea.

BIGARRENA.- Eskaintza aurkeztu duen bakarra izan den SIRIMIRI SERVICIOS SOCIOCULTURALES S.L. enpresari, eskaintza hori udalaren interesentzat egokia dela jo ondoren, jakinaraztea eta eskatzea, hamar egun balioduneko epearen buruan, errekerimendua jasotakoaren biharamunetik kontaktzen hasita, Baldintza administratiboen pleguko 17. artikulua adierazten duen ondorengo dokumentazioa eta egiaztagiriak aurkez ditzala: **Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 146.1. artikulua adierazten dituen aurretiazko baldintzak bete izanarena, zerga-betebeharretan eta gizarte-segurantzarekikoetan egunean egotearena, 9.009,20 euroko behin betiko bermea eratu izanarena, lizitazioaren iragarpena ALHAOn argitaratzeagatik gastua ordaindu izanarena, ekonomia-jardueren gaineko zergan altan egotearena, aseguru-polizaren kopia eta horren ordainagiria eta kontratatze gai dela eta **Baldintza administratibo eta teknikoen Pleguetan xedatutakoaren arabera kontratua burutze aldera erabili eta gordetzeko konprometitutako baliabideak eduki badituela** egiaztatzen duten gainerako agiri guztiak.**

HIRUGARRENA.- Aurreko izapideak egin ondoren, Idazkaritzak Proposamen-Txostena egitea eta Osoko Bilkura honi jakinaraztea dagokiona erabaki dezan.

LAUGARRENA.- Unai Gutiérrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordezkari denari,

La Corporación por unanimidad
ACUERDA:

PRIMERO.- Declarar válidos los actos licitatorios efectuados en el procedimiento de contratación objeto del presente.

SEGUNDO.- Notificar y requerir a SIRIMIRI SERVICIOS SOCIOCULTURALES S.L. única licitadora que ha presentado oferta y que se considera adecuada para los intereses municipales, para que presente, en el plazo de diez días hábiles a contar desde el siguiente a aquél en que hubiera recibido el requerimiento, la documentación a que hace referencia el artículo 17 del Pliego de Cláusulas Administrativas (justificación del cumplimiento de los requisitos previos a que hace referencia el artículo 146.1 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la seguridad social, haber constituido la garantía definitiva por importe de 9.009,20 euros, justificante de abono del gasto del anuncio de licitación en el BOTHA, estar dada de alta en el impuesto de actividades económicas, copia de la póliza del seguro y justificante del pago de la misma y cualesquiera otros documentos acreditativos de su aptitud para contratar y **de la efectiva disposición de los medios que se hubiese comprometido a dedicar o adscribir a la ejecución del contrato conforme a lo dispuesto en el Pliego de Cláusulas administrativas y Técnicas.**

TERCERO.- Realizados los trámites anteriores, que por Secretaría se emita Informe-Propuesta y se dé cuenta a este Pleno para resolver al respecto.

CUARTO.- Facultar al Sr. Alcalde-Presidente D. Unai Gutiérrez Urkiza o a quien legalmente le sustituya, para que en



gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren agiriak formaliza ditzan udalaren izenean eta ordezkaritzan.

6.- EH-BILDU TALDEAREN MOZIOA, ARABAKO TOKI ERAKUNDEEN AUTONOMIAREN ETA HORIEK FINANTZATZEKO BEHARRAREN ALDE.

Alkateak, EH-Bildu taldeak Arabako Toki Erakundeen autonomiaren eta horiek finantzatzeko beharraren alde aurkeztutako mozioa irakurri du, proposamena ondoren zehazten dena izanda:

“1.- Zuiako Udalak berresten du Toki Erakundeak finantzatzeko eredua aldatu egin behar dela eta Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa lehenbailehen eguneratu behar dela Arabako Kontzeju, Udal eta Koadrilei finantzaketa bidezkoa, nahikoa eta beharrezkoa bermatzeko.

2.- Zuiako Udalak Arabako Batzar Nagusiei eta Aldundiari eskatzen die uda aurretik etenda daukaten Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsaren Ponentzia susper dezatela lehenbailehen.

3.- Zuiako Udalak Arabako Aldundiari eta Batzar Nagusiei eskatzen die Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa aldatzeko eta eguneratzeko beharrezkoak diren lege-aldaketei ekiten dietenean, Toki Erakunde guztiei zuzenean parte hartzeko aukera eman diezaietela; horretarako, nahikoa bitarteko prestatuko dituzte Kontzejuek, Udalek eta Koadrilek beren ekarpenak egin ahal izateko.

4.- Mozio hau Arabako Kontzeju Elkartera, EUDELera eta Arabako Batzar Nagusietara bidaliko da, eta Arabako Aldundiko Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Saileko diputatuari ere bidaliko zaio.

nombre y representación del Ayuntamiento formalice cuantos documentos sean precisos en ejecución de este acuerdo.

6.- MOCIÓN DE EH-BILDU EN DEFENSA DE LA AUTONOMÍA DE LAS ENTIDADES LOCALES DE ARABA Y NECESIDAD DE FINANCIACIÓN.

El Alcalde da lectura a la moción presentada por el Grupo EH-Bildu sobre la autonomía de las Entidades Locales de Álava y su necesidad de financiación, cuya propuesta a continuación se detalla:

“1.- El Ayuntamiento de Zuia se reafirma la necesidad de un cambio en el modelo de financiación de las Entidades Locales y una actualización urgente de FOFEL para garantizar una financiación necesaria, justa y suficiente para los Concejales, Ayuntamientos y Cuadrillas de Araba.

2.- El Ayuntamiento de Zuia exige a las Juntas Generales y a la Diputación de Araba que, a la mayor brevedad, reactiven la Ponencia de FOFEL que mantienen en suspenso desde antes del verano.

3.- El Ayuntamiento de Zuia solicita a la Diputación y a las Juntas Generales de Araba que, a la hora de abordar los cambios legales necesarios para la reforma y actualización del FOFEL, posibiliten la participación directa de todas las Entidades Locales, habilitando para ello cauces suficientes para que los Concejales, Ayuntamientos y Cuadrillas puedan realizar sus aportaciones.

4.- Esta moción será remitida a las Juntas Administrativas de Zuia, a la Asociación de Concejales de Araba, a EUDEL, a las Juntas Generales de Araba y a la Diputada de Desarrollo Económico y Equilibrio Territorial de la Diputación de Araba”.



EAJ/PNV taldea: zuzenketa bat aurkeztu dio mozio horri eta Ircio zinegotzi andreak irakurri egin du:

“1.- Zuiako Udalaren ustez, Ekarpunen Legean araututa dagoen eta, erakunde maila guztietan, arrisku partekatua ezartzen duen euskal finantziazio-ereduak, Arabako Batzar Nagusiek Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsaren (TEFFF) arau bidez arautu dutenak, udalen autonomia errespetatzen du. Horren barnean udal eskumenei buruzko finantzaketa sartzen da eta, gainera, toki erakundeen beharrak behar bezala betetzen uzten du, inbertsioari lotutako berariazko beste programa batzuen babesarekin batera (OZPF, auzolanak, obra txikiak).

2.- Zuiako Udalak 2018. urtean toki erakundeen finantzaketan izango den % 0,5eko gehikuntza era positiboan baloratzen du. Arabako Foru Aldundiko Aurrekontu Proiektuan ageri da iguera hori; horren arabera, udalen partaidetza % 57aren gainetik geratu da, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko balio altuenetan.

3.- Zuiako Udalaren ustez, TEFFFren txostena 2018ko lehen seihilekoan amaitzea komeni da; hala, udaletako, koadriletako eta kontzejuetako ordezkariak entzun ondoren, ahalik eta adostasun handiena bilatuko da talde politikoen artean; adostasun horri esker, akordio maila handiena duen finantzaketa eredu bati eutsi ahalko zaio denboran zehar.

4.- Zuiako Udalak azaldu du gai garrantzitsu baten gainean hartu beharreko erabakia (toki erakundeen finantzaketa, esaterako) denek elkarrekin egindako lanaren emaitza izan behar dela. Arrazoi hori dela-eta, toki erakundeek (udalak, koadrilak eta kontzejuak) eta haien elkarteek (EUDEL, AKE eta ACOVI) Batzar Nagusietan dagoen finantzaketari buruzko txostenean izandako partaidetza

Grupo EAJ/PNV: presenta una enmienda a dicha moción y la Concejal Sra. Ircio da lectura a la misma:

“1.- *El Ayuntamiento de Zuia considera que con el modelo vasco de financiación regulado en la Ley de Aportaciones y que establece el riesgo compartido, a todos los niveles institucionales, regulado en las Juntas Generales de Araba a través de la Norma del FOFEL, se mantiene el respecto de la autonomía municipal, incluye la financiación ligada a las competencias municipales y permite cumplir adecuadamente, junto con el apoyo de otros programas específicos ligados a la inversión (PFOS, Veredas, Obras Menores), las necesidades de las Entidades Locales.*

2.- *el Ayuntamiento de Zuia valora positivamente el incremento del 0,5% en la financiación de las Entidades Locales que se va a producir en el año 2018 y que ya figura en el Proyecto de Presupuestos de la Diputación Foral de Araba, que sitúa la participación municipal por encima del 57%, en los valores más altos de la CAPV.*

3.- *El Ayuntamiento de Zuia, considera conveniente que se finalice la Ponencia de FOFEL en el primer semestre de 2018 que una vez oídos los representantes de los Ayuntamientos, de las Cuadrillas y de los Concejos, se busque el máximo consenso posible, entre los grupos políticos, que permita mantener un modelo de financiación con el mayor nivel de acuerdo posible y a lo largo del tiempo.*

4.- *El Ayuntamiento de Zuia expresa su apoyo a que la toma de decisiones sobre un tema importante, como es la financiación de las Entidades Locales, deber ser labor de todos. Por ello, agradece la participación y las aportaciones que las Entidades Locales (Ayuntamientos, Cuadrillas y Concejos) y a las Asociaciones de las mismas (EUDEL, ACOA y ACOVI) que están realizando en la Ponencia sobre*



eta bertan egindako ekarpenak eskertu ditu.”

Ondoren taldeek esku hartu dute.

PP: Sautu zinegotzi jaunak esan du ados dagoela EH-Bilduk aurkeztutako mozioarekin eta ildo horretan aritu dela lanean Batzar Nagusietako ponentzian, baina 3. puntua deigarria egiten zaio erakunde horiek esku hartu dutelako; EAJ/PNV taldearen zuzenketan ere deigarria egiten zaio 3. puntua, aipatu taldeko pertsona batek kontrolatzen duelako ponentzia. Ircio zinegotzi andreak erantzun dio 6 alderdi daudela eta ez dela ponentzia aktibatzen oso zaila delako aipatu taldeak bat etortzea.

ZGB/ZNU: Eguiluz zinegotzi jaunak esan du duela urte asko joratu zela gai hau AKEn eta zaila izango litzatekeela Udalen eta Kontzejuen arteko aldaketa hori egitea, baliabideak mugatuak direlako, Udalak eta Kontzejuak finantzatu beharko litezke, ados daude biek.

EH-Bildu: Otsoa Eribeko zinegotzi jaunak uste du ez direla diru-laguntza eta finantzazioa nahastu behar; bere ustez, Kontzejuei TEFFFean ematen zaion partaidetza ez dela urria. Alkateak dio EAJ/PNVren mozioa ke-lainoa dela.

Gaiaren inguruan eztabaidatu eta azkenean, lehenik, EAJ/PNVk aurkeztutako zuzenketa bozkatu du, eta horretan alkatearen kalitatezko botoak erabaki du, horren aurka, bitan emaitza berdinketa izan delako (EAJ/PNVko zinegotziena aldeko hiru boto, EH-Bilduko kontrako hiru boto) eta ondoren EH-Bilduren mozioa bozkatu da.

Financiación existente en Juntas Generales”

A continuación intervienen los grupos.

PP: el Concejal Sr. Sautu dice que está de acuerdo con la moción que presenta EH-Bildu y en esa línea se ha estado trabajando en la ponencia de JJGG, pero le llama la atención el punto 3º porque dichas entidades han participado; respecto a la enmienda de EAJ/PNV también le llama la atención en el punto 3º cuando la ponencia la controla una persona del citado grupo, contestándole la Concejal Sra. Ircio que hay 6 partidos y no se activa la ponencia porque es muy difícil poner de acuerdo a los citados grupos.

ZGB/ZNU: el Concejal Sr. Eguiluz dice que hace años ya se trató el tema en ACOA y sería complejo hacer esa modificación entre Ayuntamientos y Concejos porque los recursos son limitados, habría que financiar a los Ayuntamiento y Concejos, están de acuerdo con las dos.

EH-Bildu: el Concejal Sr. Otsoa Eribeko piensa que no hay que mezclar subvención con financiación; piensa que la participación que se da a los Concejos en el FFOFEL no es escasa. El Alcalde dice que la moción de EAJ/PNV es una cortina de humo.

Se debate el tema y finalmente se procede a la votación en primer lugar de la enmienda presentada por EAJ/PNV, sobre la que decide el voto de calidad del Alcalde, en contra de la misma, tras el resultado de empate por dos veces (3 votos a favor de los Concejales de EAJ/PNV, tres en contra de EH-Bildu y el resto abstención) y a continuación se vota la moción de EH-Bildu.



Udalbatzak, gehiengoz, eta EH-Bilduko hiru zinegotzien eta ZBG/ZNUko bien aldeko botoarekin, EAJ/PNVko hiruen aurkakoarekin eta PPkoaren abstentzioarekin, EH-Bilduk aurkeztutako mozioa onartu da.

7.- TXOSTENAK.

Elorza zinegotzi andreari hitza eman eta honakoa jakinarazi du:

- Urtea amaitu aurretik zinegotziei bidaliko die Berdintasun teknikariak igorri dion urte osoko laburpena eta berdintasunetik aldundi mailan proposatutakoa: ekintza-plana eta planaren garapena.

8.- INTERPELAZIOAK, IZAPIDETZEKO ETA PREMIAZKO GAIAK.

Alkateak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, udal-langileen 2018. urterako lan-egutegiaren onarpena gai-zerrendan aurreikusi ez den aztergai gisa jasotzea proposatu du.

Udalbatzak aho batez, eta premiazkozat jo ostean, ondorengo aztergaia gehitzea erabaki du:

8.1.- Aprobación del calendario laboral personal del Ayuntamiento de Zuia 2018.

Alkateak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, udaleko langileen 2018ko lan-egutegiaren proposamena (musika irakasleak kanpo) jakinarazi du, honako jardunaldi honekin, indarrean dagoen araudia aintzat hartuta: urtean 1.642 ordu, astean 37,5 ordu, ekainetik irailera (35 ordu astean) eta abenduaren 21ean eta 28an (6 ordu egunean) izan ezik, 22 opor-egun gehi 2 gehiegizko orduengatik eta

La Corporación por mayoría, con el voto favorable de los tres Concejales de EH-Bldu y los dos de ZBG/ZNU, tres en contra de EAJ/PNV y la abstención del PP, aprueba la moción presentada por EH-Bildu.

7.- INFORMES.

Concedida la palabra a la Concejala Sra. Elorza informa lo siguiente:

- Antes de acabar el año remitirá a los corporativos el resumen de todo el año que le ha enviado la Técnica de Igualdad y lo que se propone a nivel de Diputación desde berdintasuna: plan de acciones y desarrollo del plan.

8.- INTERPELACIONES, ASUNTOS DE TRÁMITE Y URGENTES.

El Alcalde, reiterando lo expuesto en la Comisión informativa propone incluir como punto no previsto en el Orden del día la aprobación del calendario laboral del personal trabajador del Ayuntamiento para el año 2018.

La Corporación por unanimidad y previa declaración de urgencia acuerda incluir el siguiente punto:

8.1.- Aprobación del calendario laboral personal del Ayuntamiento de Zuia 2018.

El Alcalde, reiterando lo expuesto en la Comisión informativa, da cuenta de la propuesta del calendario laboral de los trabajadores del Ayuntamiento para el año 2018 (excluidos profesores de música), con una jornada de 1.642 horas/anuales, 37,5 horas/semana, salvo de junio a septiembre que será de 35 y 21 y 28 de diciembre 6 horas/día, 22 días de vacaciones más 2 por exceso de horas y 6 de libre disposición,



norberaren aukerako 6 egun, indarrean dagoen araudia kontuan hartuta. Udalbulegoetan jendearen arretarako ordutegia (9:00etatik 14:00etara) eta lan-ordutegia (astelehenetik ostiralera 7:45etik 15:15era, 18.06.1etik 18.09.30era bitartean izan ezik, 8:00etatik 14:00etara izango baita) mantenduko dira.

Udalbatzak onartzea ERABAKI DU aho batez.

9.- GALDERAK ETA ESKAERAK

Ircio zinegotzi andreak galdetu du ea pertsonarik hartu den Lanbideren enplegu-planerarako, eta alkateak jakinarazi dio batek lanaldi osoz jardungo duela 5 hilabetez eta beste bigarren batek %60eko lanaldiaren hiru hilabetez.

Eguiluz zinegotzi jaunak esan du skate eremua eta Bitoriano pilotalekuarena hostoz beterik daudela eta garbitu behar direla.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, alkate-udalburu jaunak bilkura amaitutzat eman du 20:30ean, eta nik, idazkaria naizen honek, hori guztia egiaztatu dut.

teniendo en cuenta la normativa vigente. Se mantiene el horario de atención al público en las oficinas municipales de 9:00 a 14:00 horas, y el horario de trabajo de 7:45 a 15:15 horas de lunes a viernes, excepto los días comprendidos entre el 01.06.18 y 30.09.18 que será de 8:00 a 15:00 horas y el 21 y 28 de diciembre de 8:00 a 14:00 horas.

La Corporación por unanimidad ACUERDA aprobarlo.

9.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

La Concejala Sra. Ircio pregunta si ya se ha cogido a alguna persona para el plan de empleo de Lanbide, informando el Alcalde que una será a tiempo completo durante 5 meses y otra 2º a tiempo parcial de un 60% durante tres.

El Concejala Sr. Eguiluz dice que la zona del skate y del frontón en Bitoriano están llenas de hojas y hay que limpiar.

Y no habiendo más asuntos que tratar, por el Sr. Alcalde-Presidente se dio por finalizada la sesión, siendo las 20:30 horas de todo lo que como Secretario certifico.

Idazkaria / La Secretario,